

⇒ Hizpide ⇒

Euskal ilustrazioaren panorama HGL-n

Dani Maiz



Ángel Domínguez

Berrikuste historiko labur honetarako, arreta XX. mendean jarriko dugu, irudigile aipagarrienak bertan agertzen baitira, HGL euskal literaturaren genero independente moduan finkatzearen ondorio.

1900-1936

Aldi horretan irudigileen eta garaiko abangoardien arteko lotura antzematen da, kubismo eta futurismoa alegia. Irudiek haurrentzako heziketa estetikoaren aldeko asmoa adierazten dute.

Eguneroko prentsan tokia hartzen doan istoriotxo grafikoaren hizkuntzak garaiko irudigileengan eragin handia du, gainera. Honela *Euzko Deyan* argitaratutako *Teles eta*



Pedro Osés

Miko-ren (1918) istorioak, euskal komikiaren aurrekari, garaiko pizgarri nagusia dira.

Egile moduan aipa ditzakegu, alde batetik, euskal ilustrazio modernoaren aitatzat hartzen dena: John Zabalo, *Txiki* (1892-1948). Zabalok marra argia, jarraitua eta zehaztua erabiltzen du, konposaketa txukun eta gardenekin, haren lehenengo lanek erakusten duten moduan (*Dar-dar-dar*, *Txomin arlote*, *Martin txilibitu*, *Sorgin-lapurra* eta *Xabiartxo*). Geroxeago, marra utzi gabe, ilustrazio bolumetrikiko eta espazialagorantz joko du.

Bestetik, Ander Jaurigebeitiaren lana dago, 1930. urte aldera, *Ipuinak* libururako (Oscar Wilde eta Grimm anaien ipuinen sorta). Haren irudiek trebetasun teknikoarekin egindako marrazketa errealista eta dotorea erakusten dute, itxura erromantiko jantzia.

Euskal hitzen aldi itxaropentsua da hori. HGL-n ohikotik modernora doazen argitalpen ugari egiten dira, europar lanen itzulpenez gain.

Gerra eta gerraostea

Henri Laulhé eta Breysse Iparraldeko irudigileek, *Xoria Kantari* eta *Ichtorio Ederrena* lanetan, aurreko egileen ildo grafikoari jarraitzen diote, kartelismotik jasotako hainbat konposizio-irizpiderekin, eta gero

eta ohikoagoa den komiki-hizkuntza adierazpen bide bihurtzen dute.

Urte horiek kalitate eta kantitate falta dute ezaugarri nagusitzat. Elizak eta erlijio-liburuak dira nagusi, euskara hizkuntza debekatua baita.

Gerrak eta gerraosteak, II. Mundu Gerratik aurrera, Europan gertatzen den aldaketa sakonetik kanpo uzten du HGL. 60 eta 70eko hamarkadetara arte ez dira helduko europar korrante berriak.

1957tik aurrera, HGL-ren berpizkunde txikia ematen den hamarkadan, *Umetxoen ipuinak* izeneko animalia istorioetan agertzen diren irudiak aipa daitezke, Beatrix Potter irudigile britainiarraren eraginpean. Hark urte batzuk lehenago, animalia antropomorfoen istorioak berritu zituen, Disneyk geroxeago ezagutaraziko zituenak.

Istorioek mende hasierako alegien ildoari jarraitzen diote.

Aipagarria da ere hainbat egileren lana (tira komikoak), *Umeen deia* (1959) haurren aldizkarirako.

1960 - 1980

60ko hamarkadan, album irudiztatua agertzen da, eta horrekin batera, HGL irudigile internazionalen joeraren eta parametroen barne garatzen da.

Euskadin bizi diren gertaerek (garapen industrialia eta ekonomikoa, euskara batzea, euskaraz egindako kultura-ekintza guztiak gaitzesten dituen erregimen frankistaren aurkako ekintzailatza politikoa, alfabetatze-kanpainak...) euskal argitaletxeen arloa eraldatzen dute, ekoizpena handitzen da, ikastolen berrikuntza pedagogikoa gertatzen da, eta kultura-talde zein argitaletxe berriak agertzen dira: Edili, Iker, Mensajero, Etor, Gero, Erein, Elkar, Alberdania...

Garatze-bide horren erdian, 1965ean, Durangon egiten da Euskal Liburuaren lehen Azoka.

70eko hamarkadan, euskal HGL arloko ilustrazioaren unerik garrantzitsuena hasten da, urte batzuk lehenago sortu zen kataluniar eskolaren abangoardiapen.

Aldi horretako irudigileak gailenduz eta profesionalizatuz doaz, eta horrek kalitate eta gainbalio bat ematen dio haien lanari.

Edorta Kortadi (1946) (*Poxpolin*, *Zuentzat*, *Euskalerrria* eta *Txiribi bonbon*) eta Jesus Lucas (1946) (*Sorgin bat airean* edo *Ai Leire*, *Leire*) aipa ditzakegu besteak beste, baina bereziki azpimarratu behar da Asun Balzolak (1942-2006), Antton Olariagak (1946), Juan Carlos Eguillorrek (1947-2011) eta Jon Zabaletak (1950) osatutako

laukotea, estatuan zein nazioartean nabarmendu eta sari ugari jasotzen dituen.

Irudigile horiek doitasun, xarma eta poesiaz beteriko lanak sortzen dituzte, eta sorkuntza askatasuna defendatzeaz gain, guztien errespetua eta miresmena lortzen dute.

Nahiz eta estilo zein sentikortasun ezberdin eta pertsonalak izan, egile talde hori euskal HGL-ren ilustrazio modernoaren zutabetzat har dezakegu, hurrengo irudigileei joerak markatu eta bidea erakutsiko baitiete.

1980 - 2000

80ko hamarkadaren erdialdera, euskal argitaletxeen zerrenda handitu egiten da, euskaraz argitaratzen hasten diren estatu mailako beste argitaletxe batzuekin batera (SM, Anaya, Alfaguara, Desclee, Edelvives...). Bestalde, sari berriak sortzen dira HGL arloan (Lizardi, Baporea-SM, Bilintx, Antonio María Labaien, Euskadi Literatura...).

Berritasun horiek ekoizpena areagotu egiten dute, eta, ondorioz, egile grafikoen eskaera handitu egiten da. Horregatik, hurrengo urteetan, inoiz baino gehiago, irudigile ugari sortzen dira: Ángel Domínguez (1953), Belén Lucas (1958), Jose Antonio Tellaetxe (1959), Jokin Mitxelena (1962)...



Mikel Valverde

BIBLIOGRAFIA:

Cuentos imaginados: el arte de la ilustración infantil. ARTIUM katalogoak.

Sancho el Sabio Fundazioko katalogoa.

Evolución y actualidad de la literatura infantil y juvenil en lengua vasca. Mari Jose Olaziregi.

Algunas reflexiones para abordar la historia de la ilustración de la LIJ. Aproximación a la ilustración en Euskal Herria. Eburne Uria.

Añamendi entziklopedia.

90eko hamarkadan, irudigile sorta berri bat agertzen da: Mikel Valverde (1966), Iñaki Martiarena (1967), Elena Odriozola (1967), Concetta Probanza (1969)...

Nortasun propioirik gabe, euskal HGL arloko ilustrazioa teknika-eta estilo-aniztasunaren barnean mugitzen da. Egileek, aurrekoen jarraibidetan oinarrituta, estilo pertsonal eta oso aintzatetsiak birsortzea lortuko dute.

Gaur egun

HGL guztiz sendo dago, eta liburuaren arloan gailentzea lortu du.

Album eta liburu irudiztatuaren hedapenaren garaian gaude, eta ilustrazioak garrantzi handia lortu du protagonista gisa.

Iraultza horrekin batera, irudigile berrien belaunaldi bat dator, ohiko teknika eta teknika digitala nahasiz lan egiten dutenak, teknologia berriei esker, nazioarteko bihurtu den merkatuari kalitate artistikoa zein askotarikotasun bikaina eskaintzen diona.

Aitziber Alonsok (1971), Iban Barrenetxeak (1973), Lorena Martínezek (1973), Iraia Okinak (1980) eta Maite Gurrutxagak (1983), besteak beste, emakumez beteriko gaur egungo profesionalen multzo berria osatzen dute.

Euskal Irudigileen Elkarte Profesionalaren sorrerak (2003) eta Etxepare sariak (2006) nahiz berreskuraturako Euskadi Ilustrazio sariak (2009) lanbidea babestu eta duin bihurtu dute azken urte hauetan, eta irudigilearen figurak eta hark egiten duen lanak gero eta errespetu eta arreta gehiago sortu eta erakartzen du.

Etorkizunari begira, liburu digitalak HGL-ren panorama alda dezake zalantzarik gabe, eta egoera horren aurrean, irudigileak euskarri berrien beharretara eta hizkuntzara moldatzeko gai izan beharko du.



Lorena Martínez

Panorama de la ilustración vasca en la LIJ

1900-1936

En este periodo se aprecia la vinculación de los ilustradores con las corrientes vanguardistas del momento: el cubismo y el futurismo.

Además, el lenguaje de la historieta gráfica en la prensa diaria influencia enormemente a los profesionales del momento.

Guerra y posguerra

La guerra y posguerra frenan el avance hacia el profundo cambio que transforma la LIJ en el resto de Europa tras la II Guerra Mundial.

1960 - 1980

En los 60 aparece el álbum ilustrado y con ello la LIJ se desarrolla dentro de los parámetros y tendencias de los ilustradores internacionales.

En los 70, se vive uno de los momentos más importantes con la vista puesta en la vanguardia de la escuela catalana.

Los ilustradores empiezan a especializarse y profesionalizarse. Serán con el tiempo la columna de la ilustración moderna vasca, pues ellos marcan las tendencias y muestran el camino a los que llegan después.

1980 – 2000

Aumenta la producción y en consecuencia se amplía la demanda de creadores gráficos, con lo que empiezan a surgir más ilustradores que nunca en los siguientes años.

Sin una identidad propia, la ilustración en estos tiempos se mueve entre la diversidad de estilos y técnicas. Los autores, inspirados en las pautas de los anteriores saben recrear estilos muy personales y reconocibles.

Hoy

Hay una expansión del álbum y el libro ilustrado, donde las ilustraciones adoptan un papel protagonista.

Esta revolución viene acompañada con una nueva generación de profesionales, compuesta en su mayor parte por el género femenino, que combinando las técnicas tradicionales con las digitales, ofrecen una calidad artística y una variedad excepcionales ante un mercado cada vez más internacionalizado por las nuevas tecnologías.

Panorama of basque illustration in LCYA

1900-1936

In this period the link between the illustrators and the avant-garde trends at the time can be appreciated: Cubism and Futurism.

Furthermore, the language in graphic stories in the daily press exerted a great influence on the professionals at that time.

Spanish Civil War [1936-1939] and the post-war period

The Spanish Civil War and post-war period put the brakes on the advance towards a deep change that was to transform LCYA in the rest of Europe following the 2nd World War.

1960 - 1980

The picture book emerged in the 1960s and with it LCYA developed with the parameters and trends of international illustrators.

The 1970s saw one of the most important moments with sights set on the avant-garde movement of the Catalan school.

Illustrators began to specialise and professionalize. As time passed, they were to form the backbone of modern Basque illustration as they set the trends and pointed to the way forward to those who were to follow.

1980 – 2000

Production increased and, as a result, the demand for graphic creators expanded, so more illustrators than ever began to emerge in the years that followed.

Without a unique identity, illustration at that time developed among a range of styles and techniques. The authors, inspired by the steps taken by those who had gone before them, were able to recreate very personal, recognisable styles.


Today

There has been an expansion in the picture book and illustrated book, in which the illustrations take on a prominent role.


This revolution is accompanied by a new generation of professionals largely made up of women who, by combining traditional and digital techniques, offer exceptional artistic quality and variety when addressing a market increasingly internationalised by the new technologies.

Munia eta Iholdiren benetako historia (edo zergatik diren adiskide Balzola eta Landa)

Jone Arroita Jauregi Aranburu



Jesús Lucas



Asun Balzola eta Mariasun Landa txinparta batetik sortzen diren *bikote bitxi* horietako bat da: Landak Muniarekin topo egin zuenean, Balzola ezagutzera joan zen azkar, berak eman zezan argitara *Iholdi*.

Artikulu hau Haur- eta Gazte-Liburu eta Literaturako Nazioarteko Masterraren 4. edizioaren bukaerako lana da; masterraren antolatzaileak honako hauek izan ziren: Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Venezuelako Liburuaren Bankua, Germán Sánchez Ruipérez fundazioa eta SM fundazioa.

Munia eta Iholdiren benetako historia

Behinola baziren, iparraldeko herrialde urrun batean, bi neskatala oso berritsu, etengabe behin eta berriro beren bizitza kontatzen zutenak.

Batak Munia zuen izena, eta mendian bizi zen familiarekin, harizti baten inguruko etxe batean, eta herritik urrun samar. Bazuen ahizpa bat, Andrea, diotenez, bera baino hobeto portatzen zena.¹

Muniaren etxean gurasoek baratzea zuten, eta behiak ere bai. Sukaldaritzaren gogoko zuten, baita sukaldeko epeltasunean arazoak konpontzea ere. Gainera, Muniak sekula ez aipatu arren, bazuen katu bat, konpainia handia egiten ziona.

Muniak atsegin zuen ilargiari² begira egotea, eta irudimen handikoa zen. Gainera, bere adineko neskabila baten ohiko gaitzak zituen: oinetakoak txikiagotu egiten zitzaizkion (edo oinak hazten zitzaizkion, azkenean gauza bertsua) eta ez zuen beti ulertzen helduek esandakoa;³ hortzak galduak zituen eta ez zegoen ziur berriak aterako zitzaizkionik;⁴ beste batzuetan bihotza gogortu egiten zitzaion eta ezin zuen saihestu bihurrikeria asko egitea.⁵ Horretan antz handia zuen iparraldeko herrialde urrun hartan bertan bizi zen beste mutiko batena, Jonasena alegia, nahiz eta beraiek ez ezagutu elkar, zeren eta hau beste istorio bat baita, beste leku batean kontatuko dena. Jonasi bihotza uzkuratzen zitzaion, baina pozik zegoenean, bihotza handitu eta saltoka hasteko gogoa sortzen zitzaion.⁶

Baina, batez ere, Muniak irudimen handia zuen, eta jakin-min handikoa zen, gogoko zituen irakurtzea⁷ eta ikertzea.

Beste neskabila Iholdi zen eta herri batean bizi zen familiarekin. Muniaren adiskidea zen,⁸ baina ez zuten asko elkar ikusten, Munia ez baitzen hara oso sarri joaten.

Iholdik gogoko zuen etengabe istorioak kontatzea: hasieran istorio txikiak kontatzen zituen, etxean, ikastetxean edo kalean gertatzen zitzaizkionak,⁹ baina pixkanaka istorio luzeagoak kontatzen hasi zen, bere lagunen bizitza barne, adibidez Ainhoarena; hari «izeba txikia» deitzen zioten, bere ahizpa zaharrena haurdun baitzegoen (eta Munia bezala, *berezia* zen bere ahizpen artean¹⁰); edo Alexena, hura ere haur *berezia* baitzen eta nahi izan gabe abentura bat bizi izan zuena.¹¹

Baina, zalantzarik gabe, Iholdik are gogokoago zuen istorioak bere amonari kontatzea; amona zeruan zegoen eta aholku onak ematen zizkion, eta aldi berean han goian hegazkinek istripurik ez izateaz arduratzen zen. Bere amonari kontatu zion lehengusu Martinen¹² eta urmaelaren istorio beldurgarri hura. Urmael hura bera, bere ahate, beltxarga eta sahats negartiarekin, azken batean bere istorio ia guztietan agertzen zen; hainbestearino ezen baden urmaelari¹³ buruzko istorio bat, non Iholdi agertu ere ez den egiten, baina hau beste istorio bat da, eta beste leku batean kontatuko da.

Amonaren enkarguz, Iholdik Jeronimo karnaba (gardantxiloa) zaintzen zuen, eta geranioak¹⁴ ere bai, eta Ainhoak beste geranio bat, haren bidez jakingo zuelarik «Etorri Behar Duen»¹⁵ noiz iritsiko zen.

Aurrerago, Iholdiri soineko berriak egin zizkieten¹⁶ (baina Muniaren lagun izaten jarraitzen zuen oraindik), eta Marina ezagutu zuen, bera eta anaia zaintzeko kontratatu zutena;¹⁷ eta Deo Gratias istorioa kontatu zigun, haur-bihotza zuen auzokoarena.¹⁸

Munia eta Iholdi handitu egin ziren, baina beste ipuin batzuetan jarraitu zuten, eta batzuetan izena aldatzen zieten arren,¹⁹ iparraldeko herrialde batean bizi ziren bi neskabila haien istorioak ekartzen jarraitu zuten.²⁰





Muniak eta Iholdik ez dakiten arren, batera bizi dira irakurleen bihoztzean, ezin dituzte ahaztu-eta.

Fuera así o no lo fuera,
que entre en tu calabaza,
y salga corriendo en la plaza.

(Hala bazan, ez bazan,
sartu dadila kalabazan,
eta irten dadila Obabako plazan.)

AMAIA

Zergatik diren adiskide Balzola eta Landa

Iholdi irudiztatzeko, Landak Balzolari egindako gonbita adiskidetasun luze eta sakon honen hasiera izan zen, baita beraien lanbide-harreman estuarena ere.

«Eta astiro-astiro egin ginen adiskide, barraskiloek eta euskaldunok bakarrik egin ohi dugun bezala» (Balzola, 1997: 9).

«Ilustratzaile miretsiarekin izandako lehenengo elkarlan hark gure arteko adiskidetasun sakon, etengabe eta aberasgarria ekarri zuen» (Landa, 2007: 59).

Mariasun Landak behin baino gehiagotan kontatu du (2011b), Asun Balzolarekin *Munia* ezagutu ondoren, *Iholdi* ilustratzaile hark irudiztatzea nahi izan zuela. Egia esateko, *Iholdi*-ren lehen zatia *Munia eta bere kapela urdina* da eta Landak dioen bezala, «liburua ezin zen beste era batera hasi, baizik eta Asun Balzolarenganako mirespen- eta aitortza-keinu batekin» (2007a: 59).



Agurtzane Villate

Zati horren ilustrazioan Piltroneraren andre gisa moztortuta agertzen da Munia. Ez dirudi kasualitate hutsa denik egileek irudi hori aukeratzea, behin baino gehiagotan aitortu baitzuen Balzolak *Munia y la señora Piltroneraren* zela bere kutuna *Algunas veces Munia* saileko bost lanen artean, hark zeukan afektibitate-karga familiarragatik (Peonza, 1992: 25).

Asun Balzola 2006an hil zen, baina oraindik presente dago haren adiskidetasuna izan zutenentzat, *El mundo de Asun Balzola* (2011) liburuko testigantza sentituek erakusten duten bezala; eta ezagutzen ez dutenek haren lanetara jo dezakete hark sortu zuen mundu berezia partekatzeke. Beraz, nolabait esateko, bizirik dago, eta horregatik hitz egingo dugu orainaldian Asun eta Mariasuni buruz, beraien arteko adiskidetasuna eragin zuten bat-etortze edo kointzidentziak zerrendatzerakoan.

Bat-etortze horietako asko datu autobiografikoetatik abiatzen dira, bi liburu-sailentzat ere komunak direnak.

a) *Haurtzarora paradisua denik ez sinesteagatik*

Bi egileek haurtzaroko mundu galdua berrosatzeko sortzen dute, baina haurrenganako begirunetik egiten dute; begirune hori haurren behaketak ematen dien ezagutzatik dator, eta beren haurtzaroko oroitzapenei dieten leialtasunetik.

Honela dio Landak:

«Gertaera azpimarragarriarik ez dut bizi izan, baina oso presente daukat haurtzarora zer nolako sentimendu bortitzak egoten diren, eta zer nolako ezintasuna sentitzen den. Ezintasuna, batetik, hizkuntzaren bidez defendatzeko eta ezintasuna, bestetik, emozioak ulertzeko, zehazteko, eta emozio horiengandik babesteko» (Urkiza, 2006: 78).

Eta honela dio Balzolak:

«Beti esan izan dut garairik zoriontsuena haurtzarora delako hori oso erlatiboa dela, oso gogorra baita bizialdi horretan gertatzen zaizuna; dena berria da eta, alde horretatik, dena ezin ederragoa da, baina oso bakarrik sentitzen zara. Haurrak uste izaten du bere «bekatu» guztiak berari bakarrik gertatzen zaizkiola eta orduan ikaragarri sufritzen du, oso era berezian» (Cerqueda 1993: 55).

«Jakina, behin eta berriro itzultzen naiz haurtzarora bidaia amaigabe horretan haurraren ikuspuntuan jartzeko, helduen munduan oso izaki bakartua izatearen sentipen hura ez galtzeko. Sentipen hori da liburu bakoitzean atzeman nahi dudana» (Peonza, 1992).



Agurtzane Villate



Jon Zabaleta

Bi egileak bat datoz haurtzaroa bizitzako etapa zail gisa ikusten, eta biek aurkezten dizkigute beren protagonistak topaturiko erronka txikiak gainditzeko. Horien neskak oso gai dira gertatzen eta sentitzen dutena adierazteko, baina eskuarki beren barruko «ni»arekin hitz eginez egiten dute. Horrela, egileak Iholdi eta Munia pertsonaiez baliatzen dira beren haurtzaroko mundua islatzeko.

Landak aitortu du Iholdi bere *alter ego* literarioa dela (2011a: 43), eta esan du:

«nire ingurukoek, ezagutzen nautenek, diote nire liburuak irakurtzerakoan ni entzuten ari direla iruditzen zaiela. Ni naizela hor agertzen dena» (Jauregi, 2005: 7).

Balzolak onartzen du Muniaren pertsonaia sortzeko izen bereko ilobari gertaturikoetan inspiratu zela (Peonza, 1992: 25), baina egilearen biografia ezinbestean oroitazten diguten xehetasun asko dago sail horretan (Balzola, 1999).

b) Beren amen eta amonen eraginagatik: bazkaria eta ipuinak

Balzolaren amona figura garrantzitsua da bere heziketan. Gurasoek liburu teknikoaren argialetxea zuten, eta biek lan egiten zuten etxetik kanpo; beraz, Romana arduratzen zen haurrez eta etxeko antolaketaz, eraginkortasun handiz, bilobaren arabera (Balzola, 1999: 40). Amonak etengabe kontatu eta kantatzen omen zien, baina batez ere sukaldean isurtzen zuen bere afektibitatea, ondorengoak elikatzeko jaki gozo-gozoak prestatuz (Ibidem: 44).

Jatorduen garrantzia familiaren topaleku gisa, mahaiaren inguruan sortzen diren lokarri txeratsuak, usainak eta zapoak, behin eta berriro agertzen dira Balzolaren lanean, eta noski beren lekua dute Muniaren bizitzan (Balzola, 1984). Iholdik ere bere ekarpen txoa egiten du amonen oroitzapenei dagokienez.²¹

Landak ere bere ama aipatzen du narratzaile handi gisa, eta honela dio:

«Literaturzaletasuna txiki-txikitik lantzen den zerbait omen da eta aditu askok diotenez ipuin eta istorioak entzutean senti ohi den atseginean gauzatzen den beharra da. Nire kasuan, ama oso kontalari ona zen eta da. Oso ondo gogoratzen naiz nola kontatzen zidan *Otsoa eta*

zazpi antxumeena. Ipuin hura bazkaria bezain inportantea zen niretzat». (Kukuluma, 1999: 20).

«Pure-koilarakadekin batera, atseginez entzundako ahozko istorioen zaletasuna, irudimena ere elikatzen duen amaren maitasuna, garai gris, zapaldu eta zapaltzaileetan» (Lage, 2008: 4).

Helduaroan, miresmenez eta begirunez hitz egiten dute biek beren amei buruz, baina aitortzen dute ama-alaben arteko harremanak oso bereziak direla (Donaxanbaratz, 2002: 3), eta aldi berean oso zailak (Urkiza, 2006: 81-83).

c) Emakume eta feminista izateagatik

Balzola eta Landak txikitatik ikusi zuten alde handia zegoela neska edo mutil izatearen artean (Balzola, 1999: 13). Helduaren ikuspegitik, Landak hausnarketa hau egiten du:

«A zer bide psikologiko bitxia egin behar izan genuen nire belaunaldiko neskek, erlijiosoen ikastetxeetan “ez mistoetan” heziak, sekula izango ez ginen mutilekin identifikatzeko eta sartu nahi zizkiguten emakumezko ereduak ez bezalakoak izan nahirik!» (2011b: 43).

Balzolak bezalaxe:

«Ongi dago ohartu izana neskak sekula ez ginela ipuinetako protagonista; garrantzitsua da ulertzea zein gaizki tratatu ditugun beste kultura, kolore edo erlijio batzuk, baina sorkuntza-askatasuna galtzeko beste baldintzatzerira iritsi gabe [...] Beraz, alde batetik, ni feminista naiz [...] eta bestetik, aske izan nahi dut eta, batez ere, ez dut esajeratu nahi» (Castillo, 1994: 46).

Biek bihurtu dituzte neskak asko beren lanetako protagonista, hemen esku artean ditugunak bezalakoak, baita mutiko *bereziak* ere, edo mundu hauetara hurbiltzen dituzten ezaugarriak abereak.

Horren haritik, «egileak, adibidez *Iholdi* (*La diligencia* eta *Quique* kontakizunetan) edo *Alex* liburuetan, haurtzaro goiztiarrenetik ematen diren sentiberatasun desberdinak nola esplizitu bihurtzen dituen» jaso du Olaziregik. «Testu hauek [...] narratzailearen ideologia feminista esplizitu bihurtzen dute» (1999: 10).



Jon Zabaleta



d) Umetatik asko irakurri izanagatik

Ohean esku-argiaz irakurtzea, lurlean irakurri eta marraztea, helduen liburuak irakurtzea, anaien liburuak irakurtzea, dendetako idazkunak irakurtzea, eta irakurtzea, irakurtzea, irakurtzea... Beren neskatilek bezalaxe, bi idazleek umetatik irakurle handi gisa hitz egin izan dute beren buruaz, eta kasu honetan ere harrigarria da beren lekukotasunetan bat-etortzea, nahiz eta irakurtzea oso ikuspegi desberdinetatik ikusi familietako bakoitzean.

Balzola Elorzatarrek, Euskal Herriko merkataritza- eta industria-burgesiaren elitean heziak eta gainera, dagoeneko esan den bezala, argitaletxe baten jabeak, begi onez ikusten zuten seme-alaben zaletasun hori. Horregatik, Balzolak dio:

«Etengabe irakurri genuen haurtzaro osoan irrika aseeginaz, eta zinemara eramaten gintuzten aldi bakanetan, hilabeteetan irauten zuen haren magiak» (Balzola 1999: 15).

Landaren etxean, berriz, irakurtzea beste era batera ikusten zen, eta horregatik egile honek beti azpimarratzen du bere lehenengo irakurketek zeukaten arau-haustearen kutsua, are interesgarriagoak egiten zituelarik horrek.

«Eskuartearen jausten zen gutzia irakurtzen saiatzen nintzen, eta gauez egiten nuen, ezkutuka, irakurtzeak arau-haustearen kutsua duenean berekin duen zapora zoragarri horrekin. Garai hartan, nire inguruan, haur-komikiak eta nobelak irakurtzea ikasketari denbora kentzea zen, oso ondo ikusia ez zegoen zerbait» (Lage, 2008: 4).

* * *

Azken batean, esan daiteke, adiskide eta autore gisa, bizipen eta arteari eta bizitzari buruzko ikuspegi asko partekatzen dituztela Balzolak eta Landak, eta beraz normala dela pentsatzea Muniak eta Iholdik ondare hori gutzia heredatu zutela. Horrela, neskatile horien patua adiskideak izatea zen, eta beren *amak* nolakoak diren eta nola pentsatzen duten erakustea.



ERANSKINA: Bi sailen argitalpen eta itzulpen nagusiak

MUNIA				
		Itzulpenak	Argitaletxea	Irudiak
1982	Munia y la luna	Algunas veces Munia Jatorrizko testua: Asun Balzola		
1983	Los zapatos de Munia			
1984	Munia y el Cocofilo naranja			
1984	Munia y la señora Piltronera			
1990	Munia y los hallazgos	Itzulpena: Ramon Torrents	Destino	Jatorrizko irudiak: Asun Balzola
1982	Munia i la lluna			
1983	Los sabates de Munia			
1984	Munia i el cocoril taronja			
1984	Munia i la senyora Setsivelles	Itzulpena: Bernardo Atxaga		
1990	Munia i les troballes			
1982	Munia eta hilargia	Bertsioa: Asun Balzola	Cambridge University Press	
1988	Munia and the Orange Crocodile			
1988	Munia and the day things went wrong			
1989	Munia and the Moon			
1989	Munia and the Red Shoes			

Iholdi				
		Bilduma - Itzulpenak	Argitaletxea	Irudiak
1988	Iholdi	Siberia treneko ipuinak		Asun Balzola-ren lehenengo irudiak Iholdi-ren lehenengo bertsiorako
1988	Izeba txikia (Ainhoa)			
1990	Alex			
2000	Amona, zure Iholdi			
2005	Iholdi	Iholdi (Landak aldaketa txikiak egin zizkien lehenengo testuei)	Erein	Asun Balzola-ren bigarren irudiak Iholdi sailerako
2005	Izeba txikia (Ainhoa)			
2005	Alex			
2005	Amona, zure Iholdi			
2005	Marina			
2005	Haginak eta hilobiak			
1994	Cuadernos secretos	Tucán; 50 Serie Verde (*)	Edebé	Irudiak: Carlos Zabala
2000	Quaderns secrets	Tucán; 36 Itzulpena: Pau Joan Hernández de Fuenmayor		
1996	Iholdi; La petite tante; Alex	Itzulpena: Lucien Etchezaharreta	La Joie de Lire	Lehenengo irudiak: Asun Balzola
1999	Amona, zure Iholdi	Lau liburur helburu (Irakurketa Sustatzeko Kanpaina)	Eusko Jaurilaritza	Lehenengo irudiak: Elena Odriozola
2001	Iholdi et autres histoires	Itzulpena: Lucien Etchezaharreta	La Joie de Lire	Bigarren irudiak: Elena Odriozola
2006	Tres bichos raros	Barco de Vapor. Serie Naranja; 187 (*)	SM	
2006	Els Secrets de la Iholdi	Vaixell de vapor. Seri Taronja; 148 ; Itzulpena: Ainara Munt Ojanguren	Cruilla	
2007	Los secretos de Iholdi	Barco de Vapor. Serie Naranja; 194 (*)	SM	
2009	Les secrets d'Iholdi	Itzulpena: Lucien Etchezaharreta	La Joie de Lire	

(*) Marisun Landak egin ditu lanen gaztelaniazko bertsioak.

Erreferentzia bibliografikoak

- Balzola, A. (1982) *Munia y la luna*. Bartzelona: Destino.
 —(1982) *Munia eta hilargia* [sic]. Bartzelona: Destino.
 —(1983) *Los zapatos de Munia*. Bartzelona: Destino.
 —(1984) *Munia y el cocolilo naranja*. Bartzelona: Destino.
 —(1984) *Munia y la señora Piltronera*. Bartzelona: Destino.
 —(1990) *Munia y los hallazgos*. Bartzelona: Destino.
 —(1997) Mariasun Landa o la soledad de una loba esteparia. *CLIJ*, 100: 7-12.
 —(1999) *Txoriburu*. Donostia: Erein.
 —(2011) *El mundo de Asun Balzola*. Madril: Fundación SM Fundazioa.
- Castillo, M. (1994) Asun Balzola. Ilustración, literatura y cocina: formas del querer *CLIJ*, 67: 44-54.
- Cerqueda D. (1993) Me gusta mucho el mundo de las emociones. *Primeras Noticias de Literatura Infantil y Juvenil*, 115: 53-57.
- Doxandabaratx, B. (2002) Nire ametsak birziklatzen ikasi dut. *Euskonews & Media*, 149. 2012-03-19an ikusia <http://www.euskonews.com/0149zbn/elkar14901eu.html>
- Jauregi, I. (2005) Krokodiloak itzuli egiten dira bizitzan zehar. *Argia*, 2021: 10-15.
- Kukuluma (1999) Mariasun Landa. *Kukuluma*, 4: 19-31.
- Lage, J. J. (2008) Mariasun Landa. *Platero*, 15: 4-10.
- Landa, M. (1988) *Iholdi*. Donostia: Erein.
- (1988) *Izeba txikia*. Donostia: Erein.
 —(1990) *Alex*. Donostia: Erein.
 —(1992) Fotogramas de infancia. *CLIJ*, 41: 26-28.
 —(1997) *Ahatetxoa eta sabats negartia*. Donostia: Elkar.
 —(2000) *Amona, zure Iholdi*. Donostia: Erein.
 —(2005) *Iholdi*. Donostia: Erein.
 —(2005) *Izeba txikia*. Donostia: Erein.
 —(2005) *Alex*. Donostia: Erein.
 —(2005) *Amona, zure Iholdi*. Donostia: Erein.
 —(2005) *Marina*. Donostia: Erein.
 —(2005) *Haginak eta hilobiak*. Donostia: Erein.
 —(2007) Recordando a Asun Balzola. *Oarso*, 42, 2012-03-19an ikusia http://www.errenteria.net/es/ficheros/40_4630es.pdf 58-60.
 —(2011a) Las anécdotas de Asun que guardo en mi museo interior. En *El mundo de Asun Balzola*, 42-43. Boadilla del Monte: Fundación SM Fundazioa.
 —(2011b) El enfado de las niñas. *CLIJ*, 240: 42-46.
- Olaziregi, M. J. (1999) Mariasun Landa o la poética de la ternura. *CLIJ*, 22: 7-21.
- Peonza (1992) Entrevistamos a Asun Balzola. *Peonza*, 23: 21-30.
- Urkiza, A. (2006) *Mariasun Landa Zortzi unibertso, zortzi*. Irun: Alberdania. 66-119.

Oharrak

1. Balzola, A. (1982) *Munia y eta hilargia* [sic]. Destino, 17 «—Ni eta nire ahizpa ere oso desberdinak gara. —Bai. Baina etxeko matraka zu zara. Zeren zure ahizpa ogi puska baita. Munia ixildu egiten da, eta hilargiak [sic] erdi irrifarrez, dibertiturik, begiratzen dio.»

2. Balzola, A. (1982) *Munia y eta hilargia* [sic]. Destino, 6 «Begira hilargia [sic]! Txokolatearen paper zilarrez egina dirudi!».

3. Balzola, A. (1983) *Los zapatos de Munia*. Destino, 8 «Zein gauza bitxiak esaten dituzten helduek!, —pentsatu du Muniak—. «Ekin eta ekin, laster izan zuen berekin!» Auskalo zer esan nahi duen horrek! Eta gogo txarrez oinetakoak jantzi ditu, min egiten baitiote, eta berak zapatariarekin hitz egin nahi du, ea zer gertatzen zaien bere oinetakoei, ez baitu gogoratzen putzuetan sartu denik horrela urak hartzeko», 19 «—Zapatak ez zaizkizu txikiagotu, baina bai zuri oinak hazi, eta zure behatz potoloek punta jotzen dute eta min ematen dizute».

4. Balzola, A. (1984) *Munia y el cocolilo naranja*. Destino, 7 «—Aita, jada ez dut hortzik —esan zuen Muniak. —Lasai egon, alabatxo. Hortzak erori egiten dira, baina gero berriak sortzen dira. Munia bere aulkitxo berdean geratu zen eserita pentsatzen. «Hori ez dela egia uste dut nik —pentsatu zuen Muniak—. Ez nau konbentzitzen»».

5. Balzola, A. (1984) *Munia y la señora Piltronera*. Destino, 6 «Bihotza gogortu egiten zitzaioela sentitu zuen Muniak. Eta harrizko bihotz harekin egun osoan gaizto -gaiztoa izango zela konturatu zen. [...] Bazekien zer bait beldurgarria egingo zuela. Gaiztakeria handiren bat. Baina ezin zuen erremediari, bultzaka ari balitzaizkio bezala zen. [...] Munia gorri-gorri jarri zen, baina haren bihotzak gogor eta gor jarraitzen zuen. [...] «Ea dagoeneko ez nauten maite...», pentsatu zuen Muniak. Eta aldi berean bere bihotza betikora itzuli zela sentitu zuen. «Eta ez banaute maite..., zer egin behar dut nik?» Bihotza, harrizkoa izateari utzita, bizi-bizi ari zitzaion taupaka... «Eta ez badidate bizitza

osoan barkatzen?...» [...] –Eta bihotza biguntzen zaionean, ondo portatzen da berriro? –galdetu zion Andreak. –Noski –erantzun zion Piltronerak.

–Eta hori sarri-sarri gertatuko zaiola uste duzu zuk? –galdetu zion amak kezkatuta.

–Berak ez du nahi hori gertatzerik.

–Tira –esan zuten guztiek–».

6. Igerabide, J.K. (1999) *Jonasen pena*. Aizkorri.

7. Balzola, A. (1990) *Munia y los hallazgos*. Destino, 6 «–Baina zuk badakizu oinetako hori ez dela antzina-antzinakoa, Munia. Eta pistola horrek ez duela zerikusirik Napoleonekin... –esaten zion aitak noizean behin, ez baitzuen nahi gezurtia izaterik. –Baietz, aita, baina asmatzen ez badut aspertu egiten naiz. Izan ere, Muniak asko irakurtzen du eta gauza pila daki. [...] nahiz eta gehien gustatzen zaiona arkeologia izan».

8. Landa, M. (1988) *Iholdi*. Erein, 4 «Muniak argazki bat bidali dit. Munia nire lagun handiena da, baina ez da hemen bizi. Argazkian sonbreiru urdina du jantzita, esku batez heldzen dio haizeak eraman nahi izango balio bezala».

9. Landa, M. (1988) *Iholdi*. Erein.

10. Landa, M. (1988) *Izeba txikia*. Erein, 14. «Badakit askotan ama harrituta uzten dudala. «Txikiena atera zaigu bereziana» esan zion behin lagun bati nik entzuten nuela erreparatu gabe»

11. Landa, M. (1990) *Alex*. Erein, 6. «Aitari ere poz handia eman dio bere semea aventura baten protagonista izateak... Izan ere, abenturazale amorratuen semea naiz eta horrek asko markatu du nere bizitza, Ninari herrena izateak markatu dion bezalaxe: «Gu, antiabentureroak gaitun, Nina», esan nion batean, eta berak, irribarrez, baietz esan zidan, haur antiabentureroak klub bat osatu beharko genukeela...».

12. Landa, M. (2000) *Amona, zure Iholdi*. Erein, 11 «[...] beste eskuan pistola bat zuela ikusi nuen [...] eta benetako pistola bat zen, hori da okerreana, jostailu bate ez zela, horretaz berehala konturatu nintzen. [...] Ai, amona! Ez nekien zer egin. [...] –Utzi pistola hori edo bestela, andereñoari esango zioat! Hori da, azkenean, nik esan niona. Baina orduan, Martinek irribarre egin zuen. Oso irribarre berezia, hain ondo ezagutzen dudana mehatxu-irribarre...»

13. Landa, M. (1997) *Ahatetxoa eta sahas negartia*. Elkar.

14. Landa, M. (2000) *Amona, zure Iholdi*. Erein, 22 «Nik agintzen dizut Jeronimo gardantxiloari ez zaiola inoiz alpisterik faltako, ezta geranioei ura ere, eta ni zintzo izaten saiatuko naizela, nahiz eta tarteka zuri gutunak zuzendu behar».

15. Landa, M. (1988) *Izeba txikia*. Erein, 31 «–Potixa, noiz etorriko da haurra? [...] Erantzun gisa landareen artean lardaskatu eta jeranio [sic] pusketa bat eskaini zidan: –Jeranioa [sic] landa ezazu eta loratzen denean, Etorri Behar Duena azalduko da. Horregatik, egunero, esnatzen naizenean, leiho-kortinak zabaltzen ditut eta burua ateratzen dut kanpora [...] Nik jeranioa [sic] ikusi nahi dut, Xabier-Bernardoren etorreraz abisatu behar didana»

16. 2005ean, Erein argitaletxeak, *Iholdi* izeneko bilduma berria bultzatu zuen, eta han berrargitaratu ziren lehenengo lau lanak: *Iholdi*; *Izeba txikia* –Ainhoa–; *Alex*; eta *Amona, zure Iholdi* (aurrez *Siberia Treneko Ipuinak* bilduman argitaratuak) eta gainera bi istorio berri: *Marina* eta *Haginak eta hilobiak*. Argitaratze-apustu berri honetan, Asun Balzolak irudi berriak egin zituen sei lanetarako eta estiloa erabat aldatu zuen. *Siberia Treneko Ipuinak* bilduman Balzolaren apustua *Algunas veces Munia* sailekoen ildo beretik lan egitea izan zen, akuarela-trazuekin, kolore leunekin eta hondo zuriaz asko jokatzuz.

Bigarren aldi honetan, soslai lodiak erabili zituen beltzean, kolore lauak, tonaltate biziak eta hondoak kolorez beteagoak. Irudiak behin baino gehiagotan berrerabiltzen dira, eta nabarmena da parkeari buruzko irudien errepikapena, urmaela beltzarga, ahate eta etxolarekin; badi-rudi urmaelaren ideia, beste pertsonaia bat balitz bezala, indartu egiten duela, bere istorio propio eratorria izatera iritsi zelarik hemen: Landa, M. (1997) *Ahatetxoa eta sahas negartia*.

17. Landa, M. (2007) *Marina*. Erein, 43 «Eta, hara non, zamarrako patrika batean eskua sartu dudanean, Marinaren orrazia aurkitu dudana... Marinaren orrazia! Zirrara handia sentitu dut neure baitan. Eta poza, eta pena eta berriro poza, Marina nigandik despeditu egin delako, maite nauelako. Horregatik, orain idatzi dudana guztia puskatuko dut, apurtu, txikitu. Sekretuak gordetzen dakidalako».

18. Landa, M. (2005) *Haginak eta hilobiak*. Erein, 5 «Hasteko, esan beharko dut Deo nire auzokoa dela, emakume arrunt baten itxurakoa baina barrutik ume handi bat [...] Ingurukoek beti esaten dute torloju bat falta zaiola, atzeratua dela eta horrelakoak. [...] Amona hil zitzaigunean Deok zera esan zidan: –Zerua gu joaten garen parkea bezalakoxea da, baina askoz handiagoa, Iholdi. Eta nik amona asko maite nuelako asko poztu nintzen. Orain amona zeruan dagoela esaten didate eta.»

19. Balzola, A. (1994) *Indiana Jones-en zamarra*. Erein.

20. Landa, M. (2011) El enfado de las niñas. *CLIJ*, 240: 42-46.

21. Landa, M. (2005) *Haginak eta hilobiak*. Erein, 6 «“Erdiko apala falta zaio neska gaixoari», esan ohi zuen nire amona zenak eta nik ez nuen jakiten apalek zer zerikusi zuten Deo hain berezia izatearekin, baina atsegin nuen konparaketa hori. Beharbada, amona oso txukuna zelako esaten zuen hori, gauza bakoitza bere tokian ikustea gustatzen zitzaiolako».